



## INDUSTRIA SAILA

[Donostia Zinemaldiak](#) eta Industria Saila plataforma jartzen dute industriako kide guztien esku. Plataforma horren bitartez, lana erraztu nahi zaie industriako kideei Donostian dauden bitartean, eta Zinemaldiko sail ezberdinetan aurkezten diren film eta ikus-entzunezko proiektuak sustatzen lagundu nahi da.

Industry Club Kurzaalen kokatzen da, eta akreditatuak beren lana ahalik eta baldintzarik egokienetan egin ahal izateko instalazioak ditu. [Industriaren akreditazioak](#) honako jarduera eta zerbitzuetarako sarbidea ematen du:

Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa, Zinema Eraikitzen, Glocal in Progress, Lau Haizetara Dokumentalen Koprodukzio Foroa, Kurzaaleko 8. eta 9. aretoetan programatutako jarduerak (aurkezpenak, mahai-inguruak...), Zinemaldiko Bideoteka, profesionalen onlineko arlorako sarbidea (bertaratutako industria-kideak eta hautatutako filmen harremanetarako datuak) eta wifia eta Internetera konektatutako ordenagailuak dituen lan-eremu bateratua.

### JARDUERA PROFESIONALAK

#### Europa-Latinoamerika VIII. Koprodukzio Foroa

(Irailaren 22, 23, 24 eta 25. San Telmo Museoa)

Garapen bidean dauden proiektuak, Europakoak zein Latinoamerikakoak, aurkezteko plataforma bat da. Hautatutako proiektuen arduradunek, *pitching* saioen bitartez, zinema-industriako kideei aurkez diezazkiekete beren egitasmoak eta hitzorduetarako agenda pertsonalizatua dute haien proiektuetan parte hartu nahi duten profesionalekin.

Horrez gain, Donostiara etorri diren zinemagintzako profesional guztien topagunea ere bada. Foroan bertan, zenbait ekimen antolatzen dira; alde batetik, parte-hartzaileen artean topaketa informalki sustatzeko, eta bestetik, ikus-entzunezko industriaren gaur egungo eta etorkizuneko funtsezko giltzarrien inguruko esperientziak eta ezagutza trukatzeko.

#### Zinema Eraikitzen 36

(Irailaren 23, 24 eta 25. Príncipe zinema-aretoak)

Ekimen hau «Cinélantino, Rencontres de Toulouse» Frantziako jaialdiarekin lankidetzan antolatu da, eta urtean bi deialdi izango ditu, martxoan bata (Toulouse) eta irailean bestea (Donostia). Postprodukzio fasean dauden Latinoamerikako film luzeen ekoizpena errazteko helburua dauka, baldin eta finantzatzeko eta banatzeko zailtasunak badituzte.

Bi zinema-jaialdietako batzordeek aukeratutako sei filmez osatutako programa profesional talde baten aurrean aurkeztuko dute, talde horrek laguntza eman dezan film horiek amaitzeko, banatzeko eta zinema-jaialdietan estreinatzeko.



### [Glocal in Progress](#)

(Irailaren 23, 24 eta 25. Príncipe zinema-aretoak)

2017an sortutako industria-jarduera honen helburua da Europako hizkuntza ez-hegemonikoetan filmatuta dauden produkzioak ezagutzera ematea –hau da, alemanez, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez, italieraz edo errusieraz filmatuta ez daudenak–, kolaborazioak erraztea, koprodukzioak sustatzea eta film horiek hedatzen laguntzea.

Donostia Zinemaldiko hautaketa batzordeak postprodukzio-fasean dauden hiru film luze aukeratuko ditu eta profesional-talde bati aurkeztuko zaizkie (ekoizleak, banaketa-enpresak, salmenta-agentek eta programatzaileak, besteak beste) amaitzen eta nazioartean banatzen lagundu dezaten.

### [Lau Haizetara, Dokumentalen XV. Koprodukzio Foroa](#)

(Irailaren 26. Kursaalako 8. eta 9. aretoak)

IBAIK (Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarteak) Industria Saiala lankidetzarekin batera, garapenean dauden dokumentaletan interesa duten profesionalen arteko topagune bat eskaini nahi du, Europako koprodukzioak eta nazioarteko profesionalen artean harremanak sustatzeko. Jardunaldian zehar, produktoreek beren proiektuak aurkezten dituzte Europako *Commissioning Editor* nabarmenen multzo baten eta sektoreko hainbat profesionalen aurrean, eta banakako bilera-agenda bat antolatzen da.

### [Zinemaldia & Technology](#)

(Irailaren 22. Tabakalerako Patioan)

*Zinemaldia & Technology*, Donostia Zinemaldiak ikus-entzunezko teknologiaz eta industriaz hausnartzeko erreferentziako gune bihurtzeko asmoz egindako apustu estrategikoak, 2019an bigarren edizioa izango du, bazkide eta eduki berriz hornituta. Jardunaldia irailean egingo da, Zinemaldiaren garaian, eta enpresa-proiektu berrien lehiaketa bat, maisu-eskola bat eta I+G+B enpresen aurkezpenak barne hartuko ditu.

[Zinemaldia Startup Challenge](#) enpresa-proiektuen lehiaketa bat da. Ikus-entzunezkoen esparruan teknologia berriak ezartzean oinarritutako ekintzaitza-proiektu berriak sortzearen eta horiek Euskadin garatzearen aldeko apustua egiten duen ekimen publiko-pribatu bat.

### **Beste jarduera batzuk**

(Irailaren 20tik 28ra. Kursaal)

Horrez gain, Industria Sailak aurrerago –irailaren hasieran, Zinemaldiaren **agenda profesionalen**– zehaztuko diren aurkezpen, mahai-inguru eta profesionalen arteko bilera ugari antolatzen ditu.



## [Bideoteka](#)

Zinemaldiaren Bideotekak izena emandako filmak *streaming* bidez ikusteko aukera jartzen du industriako profesional akreditatuen esku. Filmak Zinemaldia amaitu eta hilabetera arte ikusi ahalko dituzte.

Honako film hauek ikusi ahalko dira (60 minutuko iraupena izango dute gutxienez):

- Ikusgai egoteko baimena ematen duten Zinemaldiko sail guztietako hautatuak. (*Bideotekan izena ematea doakoa*)
- Plataforman izena emandako film hautatu bakoitzeko, salmenta-agenteen katalogoko beste film bat (urtekoa). (*Izena ematea doan*)
- VIII. Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroan hautatutako proiekturen bat edo Zinema Eraikitzen 36 nahiz Glocal in Progress atalean hautatutako filmen bat duten zuzendarien lehenagoko film luzeak. (*Izena ematea doan*)
- Urteko Espainiako eta Latinoamerikako film sorta bat (*Izena emateko tasa: 70 euro film bakoitzeko*).

Film luze horiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Gutxienerako iraupena: 60 minutu.
  - Haien munduko estreinaldia 2018ko urriaren eta 2019ko irailaren artean izatea.
  - Espainian edo Latinoamerikako herrialde batean ekoitziak izatea.
- Urteko euskal filmen sorta bat (*Izena emateko tasa: 35 euro film bakoitzeko*).

Film luze horiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Gutxienerako iraupena: 60 minutu.
- Haien munduko estreinaldia 2018ko urriaren eta 2019ko irailaren artean izatea.
- Euskal Autonomia Erkidegoan ekoitziak izatea.

Industria Sailak eskerrak ematen dizkie Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari eta Europa Creativa - MEDIARI, beren funtsezko babesagatik.

**Donostia Zinemaldiko Industria Saila zure esanetara dago hemendik aurrera, 2019ko irailaren 20tik 28ra ospatuko den hurrengo edizioari begira.**

## Industria Saila

[industryclub@sansebastianfestival.com](mailto:industryclub@sansebastianfestival.com)

[www.sansebastianfestival.com](http://www.sansebastianfestival.com)

+34 943 481 217